



Ormaiztegui Udala

UDALETXEKO EKITALDI-ARETOA ARTELANEZ JAZTEKO LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Lehiaketaren helburua Udaletxeko Ekitaldi Aretoa herritarren margolanaz jaztea da. Horretarako, lehiaketan saritzen diren sei lanak Udalaren esku geratuko dira behin betiko. Udalak ez du bere gain hartzen ezinbestean eta modu iraunkorrean artelanak ikusgai jarrita edukitzeko konpromisorik ezta leku jakin batean jartzekorik ere. Udalari dagokio saritutako lanak aurkezteko era erabakitzea, hau da, enmarkatzea, argizatzea, kokatzea, e.a., beti ere, egilearen iritzia entzun ondoren.

2.- Lehiaketan herritar guztiek har dezakete parte eta egile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez. 2023ko urtarrilaren 1ean Ormaiztegui, Gabiriako, Ezkioko eta Itsasoko Udal Biztanleen Erroldan inskribatuta agertzen zirenak hartuko dira herritartzat. Haez gain, Ormaiztegin jaiotako guztiei ere herritar izaera aitortzen zaie, hortaz, parte-har dezakete lehiaketan.

Saritzen diren lanen egileek ez dute jasoko sariaz aparteko beste ordainsaririk.

Lehiaketan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Ormaiztegui Udalari Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio eta Itsasoko biztanleen erroldak kontsultatzeko, epaimahaiak beharrezkotzat jotzen duenean, eta inskripzioa ziurtatzeko soilik.

3.- Lehiaketako gaia MUGARRIAK izango da.

4.- Onartuko diren margolanak honako teknika hauek erabilitakoak izango dira, alegia, akuarelak, oleoak, akrilikoak, pastelak, ehundura-teknikak, tinta txinatarra, collage, eta antzekoak. Lanen gehienezko neurria honako hau izango da: 100 cm altueran x 100 cm zabalera.

5.- Lanak egilea nor den adieraz lezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, kartazal itxi batean, parte hartzailearen datuak, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa eta NANren fotokopia bidaliko dira. Kartazalaren kanpoaldean hitz edo testu bat jarri beharko da, eta horixe bera jarri beharko da lanaren atzealdean.

6.- **Lanak 2023ko uztailaren 7ko 14:00ak** baino lehen aurkeztu beharko dira, ondoko helbidean: Ormaiztegui Udala / Muxika Egurastokia 1, 20216 ORMAIZTEGI.



Ormaiztegi Udata

7.- Sariak

Mila euroko saria (1.000 €) hautatutako sei obren egileetako bakoitzarentzat.

Epaimahaiak egile beraren obra bat baino gehiago hautatzen badu, lan bakoitzeko ordainduko da saria.

Parte hartzen duten pertsona guztientzat, oroigarri bana.

8.-Lan irabazleak Udalaren eskuetan geldituko dira, eta inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta abarretarako eskubide guztiak berak izango ditu.

9.- Saria eman gabe gera liteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxienezko kalitate mailarik ez badute.

10.- Epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute, eta izendapena Udalaren web atarian emango da ezagutzera (<https://www.ormaiztegi.eus/>). Epaimahaiaren erabakia sari banaketaren egunean jakinaraziko da, hau da, uztailaren 19an, 13:00etan, Ormaiztegi Udaletxean.

11.- Erakusketa egin ahal izango da lan irabazleekin nahiz lehiaketara aurkeztutako gainerako lanekin edo horien artean Epaimahaiak aukeratutakoekin.

12.- Sariarik lortzen ez duten lanak Udaletxean jaso ahal izango dira 2023ko urriaren 1a baino lehen. Aipatutako epean lanak jaso ezean, egileak dituen eskubideei uko egiten diela ulertuko du Udalak, eta ondorioz, inolako eskubiderik aitortu gabe eta kalte-ordainik eman beharrik gabe, egoki irizten dion moduan erabili ahal izango ditu.

13.- Lehiaketara aurkezte soilak baldintzok goitik behera onartzea dakar berarekin.

ARGIBIDE GEHIAGO KULTURA SAILEAN

kultura@ormaiztegi.eus · 688 657 455

Ormaiztegin, 2023ko maiatzaren 5ean